

Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko programa. IV. ERANSKINA (BARNETEKIN)

Urtea :2017 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena

Gipuzkoako enpresen sarea dibertsifikatzen lagunduko duten enpresa proiektu berriei laguntzea, eraldatzeko duten gaitasunaren eta balio erantsiaren arabera, eta aintzat hartuz, bereziki, enplegu berdea eta ekonomia zirkularra bultzatzen laguntzen duten horiek barne ekintzailatza korporatiboaren ondorio izan.

Erakunde onuradunak

Onuradunak izango dira: Gipuzkoan helbide soziala eta fiskala duten pertsona juridikoak, eta oinarri teknologikoko enpresa proiektu bat edo enpresa berritzaile bat sortzeko ideia dutenak Gipuzkoan martxan jartzeko.

Diru laguntzen xedeko jarduerak

Oinarri teknologikoko enpresa edo enpresa berritzailearen ideia sortu, enpresa plana prestatu eta abian jartzeko prozesuan pertsonari edo ekipo bultzatzaileari laguntza ematea.

BIC GIPUZKOAK (Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan) babestuko dituen enpresa ekimenak.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Pertsona edo talde sustatzailearen dedikazioa (600 euro/hilabete gehienez).
- Enpresa esparruan edo proiektuaren arabera berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.
- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

Diru laguntzen zenbatekoak

Diru laguntza, kostu hautagarrien % 100 artekoa izango da, enpresa proiektu bakoitzeko 30.000€-ko gehienezko mugarekin.

Diru laguntza emateko prozedura

Diru laguntzak emateko prozedura lehiakortasunik gabekoa izango da, aurrekontua agortu arte.

Diru laguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Diru laguntzak hauek ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde

publiko zein pribatuk helburu bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta eragotzi gabe gai horren inguruan beste laguntza batzuen araudiak esaten duena.

Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko diru laguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Oreekako Departamentuari

Betetzeko epeak

- Eskaerak aurkezteko epea: **2017ko urriaren 17an, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.**
- Proiektuen exekuzio data: **2018ko irailaren 26an.**

Araudi aplikagarria

[Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa.](#)

IV-ERANSKINA: Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko diru laguntzen oinarri bereziak.

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak →

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/barnetekin>

- Diru laguntzak kudeatzeko aplikatiboa→

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

JAKINTZAREN ETA ENPRESA JARDUERAREN SUSTAPEN zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943-112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943- 112218

sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus